BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

678

AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 11koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Pasaiako (Gipuzkoa) «Pasaia-Lezo Lizeoa» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako unitateak gehitzeko eta Lehen Hezkuntzako unitateak gutxitzeko baimena emateko dena.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau unitate gehitzeko eta Lehen Hezkuntzako bost unitate gutxitzeko baimena eskatuz Pasaiako (Gipuzkoa) «Pasaia-Lezo Lizeoa» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak hasitako espedientea aztertu da.

Espediente hori Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek ikusi dira: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete behar dituzten derrigorrezko baldintzak ezartzen dituena (martxoaren 12ko BOE), eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Honen jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari 2012-2013 ikasturtetik aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau unitate gehitzeko eta Lehen Hezkuntzako bost unitate murrizteko baimena ematen zaio:

Kode-zenbakia: 20006717.

Izen espezifikoa: «Pasaia-Lezo Lizeoa».

Titularra: Pasaia-Lezo Lizeoa Irakaskuntza Kooperatiba Elkartea.

Helbidea: Kanposantu bidea, z.g.

Udalerria: Pasaia.

Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau unitate gehitzeko eta Lehen Hezkuntzako bost unitate murrizteko.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 12 unitate, honelako edukierakoak:

- 4 unitate, urtebetetik beherako ikasleentzat; bakoitza 8 ikaspostuko edukierakoa.
- 3 unitate, urtebetetik bi urtera bitarteko ikasleentzat; bakoitza 13 ikaspostuko edukierakoa.
- 5 unitate, bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat; 18 ikaspostutarako edukiera.

– Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, 300 ikaspostutarako edukiera.

– Lehen Hezkuntza: 18 unitate, 450 ikaspostutarako edukiera.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 16 unitate, 480 ikaspostutarako edukiera.

– Hezkuntza Berezia: 3 unitate.

– Batxilergoa: Modalitateak: «Zientziak eta Teknologiak» eta «Humanitateak eta Gizarte Zientziak»; edukiera: 4 unitate eta 140 ikaspostu.

2. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 11.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.